

TORRUELLA, M.F. eta JIMÉNEZ, L. (coord.) (2015)

*Ciencias Sociales y Educación Infantil. Cuando despertó el mundo estaba allí. Barcelona: Graó.*

Izenburuak argitzen digun bezala, liburu honek Gizarte Zientziek Haur Hezkuntzari eta haurren garapen sozial eta pertsonalari egiten dieten ekarpena aztertzen du. Urteak dira jada Gizarte Zientzien ikaskuntza-irakaskuntzari buruz psikologia ebolutiboaren printzipioak gaindituzat eman direla, Piageten garapen kognitiboaren estadioen teoriaren determinismoa zaharkituta geldituz; hala, adin txikiko haurrak gai dira hainbat giza nozio ulertzen, ezagutzen eta ikasten (espazioa, denbora, kausalitatea...) baldin eta irakaskuntza-ikaskuntzarako metodologiak, teknikak eta prozedurak egokiak badira. Ideia honi helduz, aurkezten dugun liburuak Haur Hezkuntzako curriculumeko Giza eta Kultur ingurunearen ezagutza eremuan sakontzeko hainbat burutapen eta hausnarketa plazaratzen ditu 89 orrialde-tan, gazteleeraz argitaratu den berrienetarikoa izanik.

Edozein curriculumaren garapenaren ginetik, UNESCOk eta Jacques Delors informeak ezarritako hezkuntza zutabeak («egiten ikasi», «ezagutzen ikasi», «izaten ikasi», «bizitzen ikasi»), liburuaren ardatzean bilakatu-tuko dira eta honen antolaketa baldintzatuko dute, bakoitzari kapitulu bat eskaintzen baitzaie. Hauen barnean, 3 atal desberdinu daitezke, alderdi teorikoa eta praktikoari garrantzi bera emanez. Hasteko, printzipio bakoitzaren garrantzi psikopedagogikoa justifikatzen da, haurren garapenean nola eragiten duen aztertuz; bigarrenik, Gizarte Zientzia ezberdinek eta bereziki Historia, Geografia, Artea eta Filosofiak aurretik deskribatutako helburu pedagogiko bakoitza garatzeko egiten duten ekarpena aztertzen da. Amaitzeko, eremu teorikoa ondo gorpuztua izanik, alderdi praktikoak garrantzia hartzen du, haurretan pentsamendu konplexua eta dibergentea garatze aldera proposamen didaktiko berritzaileak aurkeztuz.

Proposamen didaktikoen helburuen artean, pentsamendu zientifikoaren eta gaitasunen garapenak lehentasuna du, irakaskuntza-ikaskuntzarako metodologia aktiboetan oinarrituz. Puntu honetan, Decrolyren interes guneak eta konstruktibismoaren ildoak proposamenen bizkarrezurrean bilakatuko dira eta haurren kuriositatea hurbileko ingurunearekiko ikaskuntza prozesuaren giltzarri izango da, ikaslea bera ikaskuntza prozesuaren protagonista nagusian bihurtuz. Ikaskuntza aktiboa bultzatzen duten prozeduren artean, ikerkuntza metodoaren erabilera goraipatzen da uneoro, haurren kuriositatek abiatuz pentsamendu sortzailea bultzatzeko xedea hartzen duelarik.

Hau esanda, Haur Hezkuntzako irakasleentzat nahiz Hezkuntzako Fakultateko irakasle eta ikasleentzat liburu egokia da, unibertsitate esparrua eta eskola mundua lotzen baititu. Hau horrela, egileen artean Hezkuntza Fakultateko eta Haur Eskoletako irakasleak aurkitzen ditugu, bi erakundeen arteko lankidetzak sumatzen delarik. Elkarlan honen eta hausnarketa sakon baten ostean, liburuak eskoletan bertan jaso diren esperientziak era egokian barneratzea lortu du, teoriak harago joanez eta Haur Hezkuntzako irakasleen egunerokoan kontutan hartu daitezkeen ideia anitz azalduz. Gainera, proposamen didaktikoak garatzeko sekuentziak deskribatzen ditu, pausuz pausu nola gauzatu behar diren argituz, askotan faltan botatzen den alderdia izanik. Beste behin esan beharra dago praktikan jarri egin diren proposamenen aurrean aurkitzen garela eta ateratako ondorioak Irakasle-eskolako ikasle eta irakasleekin partekatzen dituztela, hezkuntza munduan desiratutako erakundeen arteko elkar ekintza era eraginkorrean aurrera eramantzelarik. Arestian aurkeztutako liburua lankidetzak honen emaitza da.

*Aritza Saenz del Castillo Velasco*